



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 20a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

- 11-25/LEY-00014. Foru-lege proiektua, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- 11-25/LEY-00009. 16/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiru hilabeteko epean hitzarmen eguneratu bat formaliza eta sina dezan San Juan de Dios Ospitalearekin. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (7. or.).
- 11-26/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzeko kenkari fiskalak ezartzeko. Félix Zapatero Soria jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-26/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten, sare horretako edozein hizkuntza-eredutan matrikulatu ere, 2026-2027 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko heldu den prozesuan. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (9. or.).
- 11-26/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen eska dezan Nafarroa sartzea su-gorriaren kontrako bakteriofagoen salbuespeneko baimenean eta fruta pipitadunerako talka-planean. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (11. or.).
- 11-26/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitate osoan ezar dezan ontzien gordailu, itzulketak eta itzulerako sistema. Carlos Mena Blasco jaunak eta EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (13. or.).
- 11-23/MOC-00044. Mozioa, zeinaren bidez premiatzen baita Frantziako Gobernuari erreklamatzera oraindik itxita dauden mugak ireki ditzan. Mozioa erretiratzea (15. or.).

—11-23/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita energia-enpresendako eta kreditu-entitateendako xedatutako prestazioak luza ditzan eta prestazio horietan ezarritako portzentajeak berrikus ditzan. Mozioa erretiratzea (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00065. Galdera, Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean aurreikusten den toki-entitateen maparen ezarpena egiaz bultzatze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (16. or.).
- 11-26/POR-00071. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeak deklaratu zirenetik ohartemandako eraginei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/POR-00072. Galdera, egoitzak publikatzeko agendari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/POR-00073. Galdera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren araugintza-konpromisoak betetzeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (18. or.).
- 11-26/POR-00043. Galdera, 2022ko suteen ondotik Valtierra mendian ezarritako leheneratze-neurriei buruzkoa. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea (19. or.).
- 11-26/POR-00050. Galdera, despopulazioari buruzko lege berrian despopulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa. Idatzizko galdera bihurtzea (19. or.).
- 11-26/PES-00042. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00043. Galdera, Moves III Planari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00044. Galdera, Nafarroako Gobernuaren mendeko edo haren tutoretzapeko zentroi buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (21. or.).
- 11-26/PES-00045. Galdera, Legasako hirigunean ibilgailuen trafikoak sortzen duen arazoari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (22. or.).
- 11-26/PES-00046. Galdera, 1055/2022 Errege-dekretuaren 34.1.b) artikulua dela-eta ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioaren gaineko ohar teknikoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- 11-26/PES-00047. Galdera, Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek igorritako gutun irekiari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (24. or.).
- 11-26/PES-00048. Galdera, Nafarroako landa-guneetako autobus-geltokiei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (25. or.).
- 11-26/PES-00049. Galdera, 2026ko tributu-neurriei buruzko legeari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (26. or.).
- 11-26/PES-00050. Galdera, Madrilen egin den azken Turismoko Konferentzia Sektorialari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (26. or.).
- 11-26/PES-00051. Galdera, NORDEX taldeak jaso dituen laguntzei, dirulaguntzei eta kenkari fiskalei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (27. or.).
- 11-26/PES-00052. Galdera, 2025eko martxoan iragarri zen epe luzeko inbertsio industrialaren funtsari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (28. or.).
- 11-26/PES-00053. Galdera, Sendaviva parkean 2025ean izandako bisitariei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (28. or.).
- 11-26/PES-00054. Galdera, beharturik eta baimenik gabe esterilizatutako desgaituei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (29. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00014. Foru-lege proiektua, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Foru-lege proiektu hori 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen da Nafarroako boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 3. artikulua aldatzea.

Horrela, bada, honakoa esan ordez:

“Foru-lege hau jardun boluntario osoari aplikatuko zaio, baldin eta jarduera, onura edo programa Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean gauzatu bada, edozein izanda ere entitateen titulartasuna edo egoitza soziala duten lekua”.

Hau proposatzen da:

“Foru-lege hau jardun boluntario osoari aplikatuko zaio, baldin eta jarduera, onura edo programa Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean gauzatu bada, edozein izanda ere entitateen titulartasuna edo egoitza soziala duten lekua. Baita Nafarroatik sustaturikoak diren nazioarteko eta/edo kanpo-boluntariotzako programei ere”.

2. ZUZENKETA

GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 5. artikulua bi zentzutan aldatzea proposatzen da: batetik, c) apartatua aldatuz; eta, bestetik, m) apartatu berria gehituz.

Horrela, bada, c) apartatuak honako hau esan ordez:

“c) Berdintasuna, begirune ideologikoa, pertsonak ez diskriminatzea eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna, boluntariotzaren jardun esparru guztietan”.

Hau esatea proposatzen dugu:

“c) Berdintasuna, begirune ideologikoa, pertsonak ez diskriminatzea, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna eta genero-ikuspegia, jardun-esparru guztietan”.

Eta, bigarrenik, m) apartatua gehitzea, honako testua izanen duena:

“m) Irisgarritasuna, beharrezko tresna den aldetik aukera-berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitate-inklusioa eta bizitza beregaina bermatzeko pertsona guztientzat”.

3. ZUZENKETA**GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN
NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI
SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen da Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 15. artikuluan 2. apartatua aldatzea h), i), j) eta l) letrak kenduz eta k) letra aldatuz.

Horrela, bada, 2. apartatuak honako hau esan ordez:

“2. Hona hemen planaren gutxieneko edukia:

- a) Izena.
- b) Xedeak eta helburuak, entitatearen misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin bat etorri behar dutenak.
- c) Planaren arduradunaren eta boluntarioen koordinatzailearen identifikazioa (pertsona bera izaten ahal da).
- d) Jarduteko lurralde esparrua.
- e) Gauzatzeko aurreikusitako epea.
- f) Dituen programen edo jardueren deskribapena.
- g) Boluntarioen identifikazioa eta eskatzen zaizkien profilak eta prestakuntza.
- h) Hala badagokio, hartzaileen profila zehazteko erabilitako irizpideak.
- i) Jarduera prozesuetako prestakuntzarako eta partaidetzarako protokoloak, sistemak eta planak.
- j) Adingabeek parte hartzen laguntzeko bitartekoak.
- k) Beharrezko bitarteko eta baliabideak, eta finantza eta aurrekontu plana.
- l) Jarraipen eta ebaluazio mekanismoak, aurreikusitako aldizkakotasunarekin.
- m) Boluntarioei ordaindu beharreko gastuen definizioa eta horiek kalkulatzeko prozedurak”.

Hau esatea proposatzen da:

“2. Hona hemen planaren gutxieneko edukia:

- a) Izena.
- b) Xedeak eta helburuak, entitatearen misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin bat etorri behar dutenak.

c) Planaren arduradunaren eta boluntarioen koordinatzailearen identifikazioa (pertsona bera izaten ahal da).

- d) Jarduteko lurralde-esparrua.
- e) Gauzatzeko aurreikusitako epea.
- f) Dituen programen edo jardueren deskribapena.
- g) Boluntarioen identifikazioa eta eskatzen zaizkien profilak eta prestakuntza.
- h) Beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabide materialak.
- i) Boluntarioei ordaindu beharreko gastuen eta horiek kalkulatzeko prozeduren definizioa”.

4. ZUZENKETA**GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN
NAFARROA ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 18. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen da Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 18. artikulua bi zentzutan aldatzea; batetik, 1, 2 eta 5. apartatuak kenduz; eta, bestetik, 4. apartatua aldatuz.

Halatan, 4. apartatuak honako hau esan ordez:

“4. Boluntario batek arestian deskribatutako jokabideren bat egiten badu, edo aldeztatik jakinarazi gabeko zigor-aurrekariak dituela egiaztatzen bada, entitateak berehalakitan behar du haren elkarlana”.

Hau esatea proposatzen dugu:

“4. Baldin boluntario bat bere boluntariotzaldian zigortua suertatzen bada Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri positiboa dakarten delituetako edozeinengatik, entitateak, berehalakitan, bertan behera utzi behar du haren lankidetzatza”.

5. ZUZENKETA**GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN
NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI
SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 41. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen da Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 41. artikulua haren 3. apartatua kenduz aldatzea.

6. ZUZENKETA**GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN
NAFARROA ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 42. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen da Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 42. artikuluen 3. apartatua aldatzea, g) letra berri bat gehituz, zeinaren testua honako hau bailitzateke:

“g) Zaintzea boluntario-ekintza askatasunezkoa, ardurazkoa, altruista eta solidarioa izan dadin, eta ordainpeko lanaren ordezkari erabilia izan ez dadin”.

7. ZUZENKETA**GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN
NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI
SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 43. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren 43. artikuluen 1. apartatua hiru zentzutan aldatzea proposatzen da.

Lehenik eta behin, lehenbiziko paragrafoa. Esaten duen hau esan ordezkari:

“1. Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua honako hauek osatuko dute, gizon eta emakumeen presentzia orekatua bermatuta:”

Apartatu hori ordezkari orekatuaren printzipioa gehituz aldatzea proposatzen da, halako moldean non honako testu hau izanen baitu:

“1. Honako hauek osatuko dute Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua, gizon eta emakumeen ordezkari orekatuaren printzipioaren bermearekin eta, beraz, sexu bakoitzeko pertsonak ezin izanen direlarik ehuneko hirurogei baino gehiago ez eta ehuneko berrogei baino gutxiago ere izan:”

Bigarrenik, f) apartatuari dagokionez, honako testuaren ordezkari:

“f) Hiru boluntario, ekitatea eta pluraltasuna bermatzen duten prozeduren bidez hautatuak”.

Hau proposatzen da:

“f) Bost boluntario, ekitatea eta pluraltasuna bermatzen duten prozeduren bidez hautatuak”.

Bestalde, h) apartatua aldatzea proposatzen da, eta honako testuaren ordezkari:

“h) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handiena duten bi sindikatuordezkari bana”.

Hau proposatzen da:

“h) Nafarroan sindikatuordekariaren % 10 baino gehiago daukaten sindikatuordekari bana”.

8. ZUZENKETA**GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN
NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI
SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen da Boluntariotzari buruzko foru-lege proiektuaren bigarren xedapen gehigarria aldatzea, lehenengo paragrafoa kenduz eta bigarren paragrafoa aldatuz.

Horrela, honako testu honen ordezkari:

“Bigarren xedapen gehigarria. Boluntarioen aitortza publikoak.

1. Foru lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak azterlan bat egingen du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan boluntarioei kenkariak jartzeko har daitezkeen neurri buruz.

2. Nafarroako Gobernuak boluntarioen aldeko bestelako neurri publikoak aztertuko ditu”.

Hau proposatzen da:

“Bigarren xedapen gehigarria. Boluntarioei aitortza publikoak egitea.

Nafarroako Gobernuak boluntarioen aldeko neurri publikoak aztertuko ditu”.

11-25/LEY-00009. 16/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

AKATS ZUZENKETA

Bi akats aurkitu direlarik 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 16/2025 Foru Legean, zeina 2025eko abenduaren 31ko 260. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, egin beharreko zuzenketak egiten dira:

Bat. 37. artikulua 1. apartatuko lehen paragrafoak honela dio:

“1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio zorpetze-eragiketak egiteko. Ildo horretan, Europako Kontuen Sistemaren arabera (SEC 2010) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen azpisektorea osatzen duten entitateen 2026ko abenduaren 31ko zorraren saldo biziak ez du 87.896.700 euro baino gehiagoko kopuruan gaindituko 2026ko urtarrilaren 1eko saldo bizia (BPGaren ehuneko 0,3ko defizit aurreikusaren finantzaketa)”.

Eta honela behar du:

“1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio zorpetze-eragiketak egiteko. Ildo horretan, Europako Kontuen Sistemaren arabera (SEC 2010) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen azpisektorea osatzen duten entitateen 2026ko abenduaren 31ko zorraren saldo biziak ez du 87.896.700 euro baino gehiagoko kopuruan gaindituko 2026ko urtarrilaren 1eko saldo bizia (BPGaren ehuneko 0,3ko defizit aurreikusaren finantzaketa)”.

Bi. Azken xedapenetako hamabigarrenak honela dio:

“Azken xedapenetako hamabigarrena. Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 55. artikulua 2. puntua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

2. Eritasuna edo istripua dela-eta beren lanpostuaren eginkizunak betetzeko ezinduta suertatzen diren su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako langile finkoak ere bigarren jarduerako lanpostu batean aritzera pasatzen ahalko dira (zerbitzu osagarrietan), halako moldez non operazio-taldean lanpostu hutsa sortuko baita”.

Honako hau esan behar du:

“Azken xedapenetako hamabigarrena. Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzea.

55. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Honela geldituko da idatzita:

2. Eritasuna edo istripua dela-eta beren lanpostuaren eginkizunak betetzeko ezinduta suertatzen diren su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako langile finkoak ere bigarren jarduerako lanpostu batean aritzera pasatzen ahalko dira (zerbitzu osagarrietan), halako moldez non operazio-taldean lanpostu hutsa sortuko baita”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita hiru hilabeteko epean hitzarmen eguneratu bat formaliza eta sina dezan San Juan de Dios Ospitalearekin

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita hiru hilabeteko epean hitzarmen eguneratu bat formaliza eta sina dezan San Juan de Dios Ospitalearekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioak

San Juan de Dios ospitaleak hamarkadak daramatza funtsezko zeregina betetzen nafarrak artatzen dituen laguntza-sarearen barruan eta sistema publikoarekin kolaboratzen baliabideak osatzea, itxaron-zerrendak murriztea eta hainbat esparrutan (ospitalizazioa, errehabilitazioa, zainketa aringarriak eta premia bereziak dauzkaten pazienteen arreta) prestazioak bermatzea ahalbidetu duten itunen eta akordioen bidez. Beraz, zen-

tro horren jarduera erabat integratuta dago gure foru-erkidegoko osasun-plangintza publikoan.

Hala ere, aitorten horrekin batera, adierazi beharra dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta San Juan de Dios ospitalearen artean sinatutako azken hitzarmena 2016ko abenduan amaitu zela. Hau da, erabat indarrean dagoen azken hitzarmena Unión del Pueblo Navarroren gobernu baten pean sinatu zen, eta horrek agerian uzten du hainbat legegintzaldi igaro direla hitzarmena eguneratu gabe. Harrezkero, zerbitzuak ematen jarraitu da aldean betebeharrak, finantzaketa-sistema, loturaren iraupena, asistentzia-helburuak eta kontrol- eta ebaluazio-mekanismoak berriaz eguneratuko dituen hitzarmen berririk sinatu gabe.

Beraz, behin-behinekotasun egoera bat dugu aurrean, zabarkeriaz bederatziz urte inguru luzatu dena, eta nekez ezkon daitekeena baliabide publikoen erabileran gorde beharreko segurtasun juridikoaren, administrazio onaren eta gardentasunaren printzipioekin. Denbora luze honetan guztian munta ekonomiko handiko kopuruak baimendu eta ordaindu dira, zentroaren jardueraren jarraipena bermatzeko. Metatutako kopuruak jada 200 milioi eurotik gorakoak dira.

Esparru hori ez egoteak zalantza legítimoak sortzen ditu ordainketen estaldura juridiko egokiari buruz, eta eztabaida irekitzen du bidegabeko aberaste-egoera bat gertatzeko arriskuari buruz, edo, gutxienez, eskubideak eta betebeharrak behar bezala ez mugatzeari buruz, Nafarroako osasun-sistema publikoarentzat hain garrantzitsua den harremanarekin bat ez datorrena.

Baina badira beste ondorio batzuk ere. Finantzaketaren etorkizunari buruzko ziurgabetasunak eragin zuzena du negoziazio kolektiboan, plantillen plangintzan eta zerbitzuen antolaketan, eta,

aldi berean, zaildu egiten du erabaki estrategikoak hartzea, bai ospitalearen aldetik, bai Osasun Departamentuaren aldetik.

Horrela, ia hamarkada bateko luzapenen, iragarkien eta etorkizunean sinatzeko konpromisoen ondoren, behin-behinekotasunaren denbora amaitu egin behar da.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean hartzarmen eguneratu bat formaliza eta sina dezan San Juan de Dios Ospitalearekin, zehatz definituko dituen zerbitzu-zorroa, finantzaketa, iraupena, ebaluazio-adierazleak eta kontrol-mekanismoak.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzeko kenkari fiskalak ezartzeko

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da foru-lege proiektu bat aurkez dezan, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzeko kenkari fiskalak ezartzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzeko kenkari fiskalak ezartzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Lagun egiteko animalien edukitze arduratsua oso zabaldua dagoen errealitate soziala da gaur egun Nafarroan, zuzeneko inplikazioak dituen osasun publikoan, animalien ongizatean, herritarren bizikidetzan eta abandonuaren aurkako borrokan.

Testuinguru horretan, Unión del Pueblo Navarrok, 2025eko abenduan, proposamen zehatz bat aurkeztu zuen neurri fiskalak eztabaidatu zirenean, kenkariak ezar daitezkeen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, albatari-arreta arruntari eta lagun egiteko animalien adopzio arduratsuari dagokienez. Ekimen hori, animalien ongizateari buruzko araudiaren arabera landu eta horrekin bat etorri arren, baztertu egin zen.

Geroago, orain dela gutxi jakin denez, Andaluziako Autonomia Erkidegoak neurri fiskal bat onetsi du ildo horretan; hura da, hortaz, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua eta adopzioa sustatzera bideratutako kenkari fiskalak ezarri dituen lehenbiziko autonomia-erkidegoa, eta horrek sendotu egiten du gisa horretako ekimene bideragarritasun juridikoa eta interes publikoa.

Nafarroa ez da berak arau-esparrutik sustatzen duen animalia-ongizateari buruzko helburuekiko zerga-politika moderno eta koherentetik at gelditu behar. Hori dela-eta, egoki da Nafarroako Gobernua premiatzea zerga-erregulazio zehatz, argi eta zergadunentzako benetako ondorioak izango dituen bultzatzea.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gehienez ere lau hilabeteko epean aurkez dezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua) aldatzeko foru-lege proiektu bat, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzera bideratutako kenkari fiskalak ezartzeko.

2. Foru-lege proiektu horretan albaitaritzagastu arrunten % 30eko kenkaria jaso dezan, familia-unitate eta zergaldi bakoitzeko 150 euroko gehieneko mugarekin. Halakotzat hartuko dira, guxtienez, honako kontzeptu hauek:

a) Identifikazioak, nahitaezko txertaketak eta prebentzio-txertaketak.

b) Albaitaritzako aldizkako kontsultak.

c) Parasitoen aurkako eta prebentziozko tratamenduak.

d) Azterketa diagnostikoak eta esku-hartzeak.

Hori guztia, baldin eta animalia behar bezala identifikatuta badago indarrean dagoen foru-araudiaren arabera eta Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan erregistratuta badago.

3. Lagun egiteko animalien adopzio arduratsuen ondoriozko kenkari fiskal bat ezar dezan, 200 eurokoa, adopzio-ekitaldian eta ekitaldi horren ondorengo bi ekitaldietan aplikatuko dena, betiere animalia edukitzen jarraitzen bada eta animalien ongizateari buruzko araudian ezarritako betebeharrak betetzen badira. Berariaz baztertuko dira salerosketa bidez eskuratzeko kasuak.

4. Aurreko puntuetan jasotako kenkariak atzeraginezko izaera izanen dutela ezar dezan, kenkariak 2026ko ekitaldiari dagokion PFEZaren aitortopenean aplikatu ahal izateko, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako albaitaritzagastuei eta adopzioei dagokienez, kasuko arau-aldaketa onetsi eta argitaratu ondoren.

Iruñean, 2026ko otsailaren 10ean

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-26/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten, sare horretako edozein hizkuntza-eredutan matrikulatu ere, 2026-2027 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko heldu den prozesuan

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten, sare horretako edozein hizkuntza-eredutan matrikulatu ere, 2026-2027 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko heldu den prozesuan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko (ahal baldin bada, eztabaida 2026ko martxoko lehen aste-an egitea eskatzen dugu).

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Nafarroako hezkuntza-sisteman irailean 2025-2026 ikasturtea hasi zuten 116.123 ikasleetatik 78.800 (% 67,8) sare publikoko ikastetxeetan matriculatuta zeuden. 2025-2026 ikasturte honetan, 3 urteko 4.754 ikasle berri sartu dira hezkuntza-sisteman, eta horietatik 2.901 sare publikoko ikastetxeetan sartu dira (% 61). Ikasle berri horietatik 3.350 (% 70) A eta G hizkuntza-ereduetan matriculatu ziren, eta 1.404, berriz, B eta D ereduetan.

Orain, 2026-2027 ikasturtean ikastetxeetan aurreinskripzioa eta matricula egiteko prozesua abiaraziko da.

Nafarroako ikastetxe publikoak gure lurralde osoko auzo eta udalentsat zabalik daude. Horietan denetan, oso garrantzitsua da familien parte-hartzea. Izan ere, legezko betebeharrak izateaz gain, ikastetxe horietako zuzendaritzek jakin badakite gurasoek ikastetxearen eguneroko bizitzan parte hartuz gero hobetu egiten dela seme-alaben errendimendua. Datu hori zenbait azterlanek berresten dute.

Ikastetxerik onenak dira neska-mutiko guztiak integratzen dituztenak eta ikasleak ez sexuaren arabera, ez egoera sozioekonomikoaren arabera, ez hezkuntza-premien arabera diskriminatzen ez dituztenak. Eskola publikoak –zero urtetik aitzinako hezkuntza-etapa guztietan– aniztasunari erantzuten dio; horrek, jakina, esfortzua eskatzen dio eskolari, baina esfortzu hori luzaz konpentsatzen da, bizi-esperientzia ere ematen dielako esperientzia hori bizi dutenei. Eskola publikoan ikasteko egiten den ahalegina balioesten da, ikasleen jatorri sozioekonomikoa zein ere den.

Eskola publikoa sortzailea eta berritzailea da. Egunerokoan sortzen ahal diren zailtasunei aurre egiten zaie, onartu egiten dira eta arazo bihurtu baino lehen jorratzen dira. Ez dira ezkututzen. Horretarako, kalitatezko giza baliabideak dauzkate. Kasuko oposizioak gainditu ondoren funtzionario bilakatu diren profesionalak dira eskola publikoko irakaslerik gehienak. Lanbidean jardun duten urte guztietan zehar beren burua prestatzen ari diren pertsonak dira.

Nafarroako hezkuntza-sare publikoan dauden hizkuntza-ereduek –A eredu (irakaskuntza gaztelaniaz da, eta euskara, berriz, irakasgaia), B eredu (irakaskuntza euskaraz da, eta gaztelania, berriz, irakasgaia), D eredu (irakaskuntza euskaraz) eta G eredu (irakaskuntza gaztelaniaz)– kalitatezko irakaskuntza bermatzen diete gure ikasleei, gure erkidegoko berezko bi hizkuntzetan.

Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako herria ordezkatzeko duen erakundea den aldetik, gure betebeharren arabera jardun beharra dugu, eta eskola publikoa aldeztzea eta hobetzea jarri behar dugu gure lehentasunen artean. Hezkuntza publikoaren ideien defentsa gaurko eta etorkizuneko gizarte justu eta aske baten defentsa da. Hori degradatu edo galtzeak eragin zuzena izanen luke etorkizuneko belaunaldien aukera-berdintasunean.

Espainiako Konstituzioak 27. artikuluan dio denek dutela hezkuntzarako eskubidea eta oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa dela (27.4). Halaber, 5. puntuan ezartzen duenez “botere publikoek bermatzen dute guztien hezkuntza-eskubidea; horretarako, irakaskuntzaren programazio orokorraz baliatuko dira, dagokien sektore guztien benetako parte-hartzearekin eta ikastetxeak sortuz”.

Horiek horrela, titulartasun eta kudeaketa publiko hezkuntza, ekitatearen eta kohesio sozialaren bermea da; bermatzen baitu hezkuntzarako eskubide unibertsala baliatzea berdintasun- eta demokrazia-baldintzetan, inolako diskriminaziorik gabe arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta.

Sistema mistoa, zeina ikastetxe publikoen sarearen osagarria baita eta Nafarroako lurralde osoa hartzen baitu (hitzarmen ekonomikoa duten zenbait ikastetxe pribaturen bidez), 1985eko LODEtik heldu da, eta herritar guztiak eskolatzen direla bermatzeko sortu zen. Urteak joan urteak etorri, demografiaren eta migrazioaren arloan izan diren aldaketak aldaketa, ekitateari dagokionez arazoak sortzen dituela ikusi da, ez baita errespetatzen derrigorrezko etapen doakotasunaren konstituzio-printzipioa (6tik 16ra urte bitarte).

Bestalde, erlijio- eta kultura-aniztasuna gero eta handiagoa den honetan, gero eta zailagoa da ezkontzea Eliza Katolikoari lotutako patronala mantentzea –eta lehen erlijiosoak ziren ikastetxeak gurasoen eta irakasleen kooperatiba bihurtzea– eta administrazio publikoek herritar guztiei eman beharreko tratua berdintzea eta gizarte-kohesioa.

"Ikastetxea hautatzeko askatasuna", zeina gizarteko zenbait sektorek erreklamatzeko baitute, segregazio bihurtzen da sistema misto honetan. Familiak eurak dira seme-alabei ukatzen dietenak bizi diren gizartean dagoen aniztasunarekin elkar bizitzea. Ikastetxeak ituntzeak ez du inolaz ere balio behar gizarte-segregazioa egiteko, eta administrazio publikoak neurriak hartzen jarraitu behar du hori ekiditeko.

Botere publikoen –eta, horrenbestez, Parlamentu honen– betebeharrak soziala da hezkuntza ahalik eta onena bermatzea ikastetxe publiko guztietan, ikasleak familiaren etxetik gertuen dagoen ikastetxean eskolatzea sustatuz bidenabar. Horretarako, udalerrri eta auzo guztiek eduki behar dute behar adina lanpostu publiko, hori ahalbidetzeko baliabide guztiak dituzten ikastetxeetan. Hori, justuagoa eta

ekitatiboagoa izateaz gain, hezkuntzaren eginkizun soziala babesten du batez ere. Hortaz, subsidiarioratasun-printzipioaren aterpean baliabide publikoak hautu pribatuak finantzatzera bideratu behar ote diren aztertu behar da kontu handiz eta etengabe.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen ditu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten, sare horretako edozein hizkuntza-eredutan matrikulatu ere, 2026-2027 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko heldu den prozesuan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 10ean

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita lehenbailehen eska dezan Nafarroa sartzeko su-gorriaren kontrako bakteriofagoen salbuespeneko baimenean eta fruta pipitadunerako talka-planean

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita lehenbailehen eska dezan Nafarroa sartzeko su-gorriaren kontrako bakteriofagoen salbuespeneko baimenean eta fruta pipitadunerako talka-planean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita lehenbailehen eska dezan Nafarroa sartzeko su-gorriaren kontrako bakteriofagoen salbuespeneko baimenean eta fruta pipitadunerako talka-planean.

Zioen azalpena

Beharrezkoa da berehala jardutea su-gorriaren hedapenaren aurrean. Gaixotasun suntsitzaila horrek batez ere pipitadun fruta-arbolei eragiten die, bereziki udareondoei eta sagarrondoei, eta ustiategi osoak honda ditzake eta sektore estrategiko bat arriskuan jar dezake Nafarroako hainbat ekoizpen-eremutan.

Azken hilabeteotan, Nafarroako fruta-sektoreak ohartarazi du gaixotasun hori gero eta larriagoa dela, eta ez dagoela hori kontrolatzeko behar adina tresna. Nekazaritza Ministerioak berak ofizialki onartu du orain arte aplikatutako neurriak ez direla aski eta gaur egun baimendutako produktu fitosanitarioak ez direla behar bezain eraginkorrak.

Horregatik, 2026ko otsailaren 5eko Ebazpenaren bidez, Nekazaritza Ministerioak baimena eman du, salbuespen gisa, bakteriofagoekin formulatutako produktu biologikoak merkaturatzeko eta erabiltzeko, pipitadun fruta-arboletan su-gorrina kontrolatzeko, prebentzio-tresna gehigarri gisa eta ekintza-modu berri batekin.

Hala ere, salbuespenezko baimen hori Katalunia, Aragoi eta Errioxako autonomia-erkidegoetara mugatzen da, haiek eskatu baitute berariaz baimen hori ezartzea. Nafarroa, berriz ere, kanpoan geratu da.

Baztertze hori guztiz onartezina da, eta agerian uzten du Nafarroako Gobernuaren ekimen-falta eta ez duela Nafarroako fruten sektorea babesten, batez ere baimendutako aldia mugatua denean eta berehalako erantzuna eskatzen duenean.

Nafarroak ezin du berandu iritsi, ez eta beste erkidego batzuk aplikatzen ari diren tresnetatik kanpo geratu ere, ustiategien, landa-enpleguaren eta fruta pipitadunari lotutako jarduera ekonomikoaren jarraitutasuna zuzenean arriskuan jartzen duen gaixotasun bati eusteko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki-proposamen hau onesten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Berehala eska dezan, 48 orduko gehieneko epean, Erwinia amylovora-ren kontra (su-gorrinaren kontra) bakteriofagoekin formulatutako produktu biologikoak merkaturatze eta erabiltze aldera Nekazaritza Ministerioak ezarritako salbuespenezko baimenean sar dadin Nafarroa.

2. Albait lasterren abian jar dezan Nafarroan su-gorrina prebenitzeko eta kontrolatzeko talka-plan bat, INTIAren egungoa baino eraginkorragoa, sektorearekin koordinatuta eta ukitutako ustiategien-tzako zaintza-neurriak, aholkularitza teknikoa, protokolo homogeenak eta laguntza eraginkorra jasoko dituen.

3. Laguntza eta kalte-ordainetarako berariazko lerro bat gaitu dezan erauzketak egitera, landare-materiala suntsitzera eta landaketak birjartzera behartuta dauden nekazarietat, konpentsazio bidezkoak eta nahikoak bermatuz.

4. Landare-osasuneko baliabide teknikoak eta ikuskaritza-baliabideak berehala indartu ditzan, INTIAk eta departamentuak kaudimen teknikoarekin eta nekazariaren zerbitzurako benetako irtenbideekin jarduten dutela ziurtatuz, eta ez pasibotasunetik edo blokeo administratibotik.

Iruñean, 2026ko otsailaren 10ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

11-26/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroako Foru Komunitate osoan ezar dezan ontzien gordai- lu, itzulketa eta itzulerako sistema

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK ETA EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak eta EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen da Nafarroako Foru Komunitate osoan ezar dezan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozio honen bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitate osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzen laguntzeko borondatea erakustea nahi dugu. Horretarako, Nafarroako Gobernua premiaituko da beharrezkoak diren erabakiak har ditzan eta ekimenak abiaraz ditzan, bere eskumenei dagokionez, eta Nafarroako toki entitateei helaraziko die Parlamentuaren borondatea kontuan har dezaten eta, beren eskumenak baliatuz, sistema hori beren lurralde eremuetan ezar dezaten.

Gure ustez egoera ezin hobean gaude Nafarroan sistema orokor bat ezartzeko, hainbat arrazoiengatik:

a) Ezagutza eskuratu dugu Zangoza herrian 2025eko ekainetik abuztura bitartean egindako proba pilotuaren bidez. Esperientzia horrek arrakasta handia izan du, bai kontsumitzaileen parte-hartzeari dagokionez, bai herriko merkataritza-

banaketari dagokionez. Zangozako proba pilotuan ontziak biltzeak izan zuen arrakastak ekarri zuen hiru hilabetetan plastikozko 237.789 lata eta botila biltzea. Proba horrek ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistemaren proba teknikoan % 82ko itzulketa-indizea utzi digu. Emaitza horiek Nafarroa osora estrapolatuz gero, ezaugarri bereko 130 milioi ontzi baino gehiago bilduko lirakeke urtean.

Ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema bat ezarri aurretik egindako proba pilotu hori indarrean dagoen hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 26.5 artikuluan aurreikusitakoaren babesean egin zen.

b) Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan planteatutako agertokia da egokiena ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistemaren eredu hori aztertu ahal izateko, Estatu osoan baino ingurune kontrolagarriago eta kontrolatuago batean.

c) Sistema hori ezartzeak enplegu soziala, berdea eta kalitatezkoa sustatuko du, bai eta Nafarroako mankomunitateek proiektuan publikoki parte hartzea ere, epe luzerako zirkulartasun-ikuspegiarekin eta ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistemaren kudeaketa operatiboaren parte izanik.

d) Modu orokorrean ezarri den estatuetan lortutako emaitzen arabera, sistema horri esker kalitate bikaineko lehengaia lortu ahal izan da, kalitate handiko birziklatzea errazten duena, eta, era berean, gainerako edukiontzietan utzitako gainetako frakzioen gaikako bilketak hobetu egin dira.

e) Onuragarria da ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboentzat, aukera ematen baitie ekoizlearen erantzukizun zabalduaren legezko helburuak betetzeko eta inbertsio seguruak eta kontrolatuak eskala txikiagoan egiteko, arriskua mugatuz eta ondoren Estatuan errepikatzeko aukera emanez.

f) Estatu osoan hondakin horiek hobekien kudeatzen dituen autonomia-erkidegoetako batean gauzatzeak bermatu eginen du planteatzen eta garatzen den ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema fidagarria izanen dela teknikoki, ekonomikoki eta antolamenduari dagokionez.

g) Ezarri den estatuetako emaitzak ikusita –baita Zangozako esperientzia pilotuarenak ere–, gure lurraldean, Nafarroan, egunero ehunka mila edariontzi botatzea saihestuko du, gaur egun lurperatu eta/edo abandonatu egiten direnak, horrek ingurumenean eta giza osasunean duen inpaktuarekin.

h) Sistema hori ezartzearen emaitza potentzialak kontuan hartuta, egingarriagoa izanen da hondakinak biltzeko eskumena duten toki-entitate guztiek eta Nafarroako Foru Komunitateak berak honako hauek agindutako bilketa bereziaren helburuak lortzea: Nafarroako Hondakinen Plana, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea eta aplikatzekoa zaien Europako araudia; bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko abenduaren 19ko 2025/40 (EB) Erregelamendua, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira 2019/1020 (EB) Erregelamendua eta 2019/904 (EB) Zuzentaraua eta 94/62/EE Zuzentaraua indargabetzen baita.

Europar Batasuneko Erregelamendu horretatik, gure Erkidegoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema bat ezartzeari eragiten dioten bi gogoeta nabarmendu behar dira:

"(137) Estatu kideek ontzien hondakinak itzultzeko eta biltzeko sistemak ezarri behar dituzte, azken horiek hondakinak kudeatzeko aukerarik egokienera bidera daitezzen, hondakinen hierarkia-aren arabera. Sistemak irekita egon behar dute alderdi interesdun guztiek parte har dezaten, bereziki operadore ekonomikoek eta agintari publikoek. Ingurumena eta kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta higiena kontuan hartuta ezarri behar dira sistemak. Itzulera eta bilketako sistemak ere irisgarriak eta inportatutako produktuen ontzietarako aplikagarriak izan behar dute, diskriminaziorik gabeko xedapenen arabera (...).

(148) Estatu kideek aukera izan behar dute gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema nazioz azpiko eskalan ezartzeko, kontuan hartuta kasuan kasuko banaketa administratibo nazionalak eta itsasoz haraindiko lurraldeen egoera espezifikoak, betiere sistema horren ingurumen-portaera eta emaitza ekonomikoak frogatzen badituzte, bai eta Erregelamendu honetan edarietarako erabilera bakarreko plastikozko botilei eta edarietarako erabilera bakarreko metalezko ontziei aplikatu beharreko % 90eko bilketa-indizearekiko erabateko koherentzia ere".

Aurretik adierazitako guztiak agerian uzten du Nafarroan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema bat ezartzearen premia eta beharra.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hauek aurkezten dira:

1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzeak aukera emanen die Nafarroako toki-entitateei honako hauek agindutako bilketa bereziaren helburuak lortzeko: Nafarroako Hondakinen Plana, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea eta aplikatzekoa zaien Europako araudia; bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko abenduaren 19ko 2025/40 (EB) Erregelamendua, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira 2019/1020 (EB) Erregelamendua eta 2019/904 (EB) Zuzentaraua eta 94/62/EE Zuzentaraua indargabetzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzea onuragarria izanen dela ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboentzat, aukera emanen baitie ekoizlearen erantzukizun zabaldua betetzeko eta inbertsio seguruak eta kontrolatuak eskala txikiagoan egiteko, arriskua mugatuz eta ondoren Estatuako gainerako lekuetan errepikatzeak aukera emanez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren erabakiak har ditzan eta ekimenak abiaraz ditzan, bere eskumenei dagokienez, Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzeko, eta, behar izanez gero, Nafarroako Hondakinen Plana alda dezan ontzien hondakinak biltzeko sistema hori ezartzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du mozio honen ebazpenak hondakinen bilketan eskumena duten Nafarroako toki-entitateei eta Nafarroako Hondakinen Partzuergoari helaraztea, erakunde honek Nafarroa osoan ontzien gordailu, itzulketa eta itzulerako sistema ezartzearen alde duen borondatea kontuan har dezaten.

Iruñean, 2026ko otsailaren 12an

Foru-parlamentariak: Carlos Mena Blasco, Adolfo Araiz Flamarique, Pablo Azcona Molinet eta Carlos Guzmán Pérez

11-23/MOC-00044. Mozioa, zeinaren bidez premiatzen baita Frantziako Gobernuari erreklamatzera oraindik itxita dauden mugak ireki ditzan

MOZIOA ERRETIRATZEA

2026ko otsailaren 16an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, premiatzen da Frantziako Gobernuari erreklamatzera oraindik itxita dauden mugak ireki ditzan.

Mozioa 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita energia-enpresendako eta kreditu-entitateendako xedatutako prestazioak luza ditzan eta prestazio horietan ezarritako portzentajeak berrikus ditzan

MOZIOA ERRETIRATZEA

2026ko otsailaren 16an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da energia-enpresendako eta kreditu-entitateendako xedatutako prestazioak luza ditzan eta prestazio horietan ezarri-

tako portzentajeak berrikus ditzan. Mozioa 2023ko azaroaren 14ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00065. Galdera, Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean aurreikusten den toki-entitateen maparen ezarpena egiaz bultzatze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean aurreikusten den toki-entitateen maparen ezarpena egiaz bultzatze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivitek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuen Ganberak tokiko sektore publikoari buruzko 2023ko txostenean adierazten duenez, Toki Administrazioaren Erreformari buruzko 4/2019 Foru Legea onartu arren, tokiko maparen erreforma eta eskualdeen sorrera ez dira garatu, eta 2020ko abuztuan amaitu zen legean aurreikusitako epea. Lurralde Kohesioko kontseilariak azal al dezake noiz aurreikusten duen Nafarroako Gobernuak Kontuen Ganberaren gomendioei kasu egitea eta modu eraginkorrean bultzatzea Toki Administrazioaren Erreformari buruzko Foru Legean aurreikusitako toki maparen ezarpena?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru-parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-26/POR-00071. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeak deklaratu zirenetik oharmandako eraginei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeak deklaratu zirenetik oharmandako eraginei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Etxebizitza Errentamendu Kontratuaren Erregistroko (RECA) datuetan oinarrituta egindako tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeei buruzko 2025eko urteko txostenak Nafarroako alokairu-merkatuak 2024an eta 2025ean izan duen bilakaera aztertzen du, eta bereizi egiten ditu tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratuak udalerrriak eta deklaratu gabeak.

Era berean, Nafarroako Gobernu eta udalak tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratuak 21 udalerriei aplikatu beharreko plan espezifikoak egiten ari dira.

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratu zirenetik ikusitako ondorioei buruz, eta zer neurri esanguratsu gehituko dira plan espezifikoaren bidez aurreikuspenen arabera?

Iruñean, 2026ko otsailaren 11n

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/POR-00072. Galdera, egoitzak publikatzeko agendari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, egoitzak publikatzeko agendari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Gobernu aurrerakoi eta plural baterako Akordio Programatikoa, Nafarroako Gobernuari sostengua ematen dionak, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroak hala eskatuta, Gizarte Politiken atalean, honako akordio hau jasotzen du:

6. Egoitzak publikatzeko agenda bat ezartzea ahalbidetuko duen azterlana egitea, desgaitasuna dutenei arreta ematen dieten horiek lehenetsita.

Azterlan hori egin ondoren, premiazkoa da egoitzak publikatzeko adostutako agenda ezartzea.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak zer agenda ezarri nahi du egoitzak publikatzeko, desgaitasuna dutenei arreta ematen dieten horiek lehenetsita?

Iruñean, 2026ko otsailaren 11n

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/POR-00073. Galdera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren araugintza-konpromisoak betetzeari buruzkoa

JAVER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrak jaunak egindako galdera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren araugintza-konpromisoak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru-parlamentari Javier Arza Porrak jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2026rako onetsitako Araugintza Planaren arabera, hauek dira Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren arau-konpromisoak:

- Mendekotasun Legea.
- Hirugarren Sektorearen Legea.
- Gizarteratzeko eta errenta bermaturako esku-bideak arautzen dituen Legearen aldaketa.

Bestalde, 2025. urteari dagokion Araugintza Planean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege berri bat egitea ere jasotzen zen. Lege hori ez da egin, baina ez da 2026ko Araugintza Planean sartu.

Era berean, Gobernua eratzeak akordio programatikoa, Gizarte Zerbitzuen Zorroa berrikustea jasotzen zen. Hala ere, konpromiso hori ez da txertatu legegintzaldi honetako ezein araugintza-planetan.

Ildo horretan, ahozko galdera hau planteatzen dugu: zer unetan dago bost arau-ekimen horiek taxutzeko prozesua, eta zer plangintza egin da legegintzaldi hau amaitu baino lehen horiek onetsi ahal izateko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 12an

Foru-parlamentaria: Javier Arza Porrak

11-26/POR-00043. Galdera, 2022ko suteen ondotik Valtierrako mendian ezarritako leheneratze-neurriei buruzkoa

LANDA GARAPENENKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2026ko otsailaren 16an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, 2022ko suteen ondotik Valtierrako mendian ezarritako leheneratze-neurriei buruzkoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko

kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2026ko otsailaren 10eko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/POR-00050. Galdera, despopulazioari buruzko lege berrian despopulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa

IDATZIZKO GALDERA BIHURTZEA

2026ko otsailaren 16an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak idatzi bat aurkeztu du, zeinaren bidez eskatzen baitu idatzizko galdera bihurtu dadin Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko egin zuen galdera, despopulazioari buruzko lege berrian despopulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea aipaturiko ahozko galdera idatzizko galdera bihurtu izanaren berri izan duela. Galdera 2026ko otsailaren 10eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (11-26/POR-00050 eta 11-26/PES-00056).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/PES-00042. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariei buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín kirol klubeko jokalariek (2025eko Espainiako Junior Txapelketan 3. lekuan sailkatu ziren) Nafarroan goi-mailako kirolari izateko gaur egungo araudian ezarritako baldintzak betetzen al dituzte?

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Foru-parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-26/PES-00043. Galdera, Moves III Planari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Moves III Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Moves III Plana amaitu ondoren: aintzat hartu al dira Nafarroan aurkeztutako eskabide guztiak? Aurkeztutako eskabide guztiak aintzat hartu ez badira, zenbat eskabide geratu dira laguntzarik jaso gabe? Zer kontzeptutan eta zenbatekotan?

Funtsak agortzen badira, beste banaketa bat egonen al da autonomia-erkidegoen artean?

Moves III Plana agortu ondoren, Espainiako Gobernuak Auto 2030 Plan berri bat iragarri du, ildo berekoa. Hala ere, Moves Planak ez bezala, honek ez du aurreikusten diruz laguntzea etxebizitza partikularretako birkarga-puntuaren instalazioa, nahiz eta etxebizitza horiek komunitarioak izan.

Nafarroako Gobernuak asmorik ba al du norbanakoentzako birkarga-puntuak instalatzeko beste laguntza-lerro bat ezartzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-26/PES-00044. Galdera, Nafarroako Gobernuaren mendeko edo haren tutoretzapeko zentroei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren mendeko edo haren tutoretzapeko zentroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken urteotan, Nafarroako Gobernuaren mendeko edo tutoretzapeko zentroetan egindako ustezko sexu-delituak salatu dira behin eta berriro; horietako batzuetan, biktimak bereziki zaurgarriak ziren. Ez dira gertakari bakanak izan inondik ere: kasu horiek ikusita, ematen du egiturazko akats larriak daudela zentro horietako prebentzio-, gainbegiratze- eta kontrol-sistemetan.

Duela gutxi, zenbait komunikabidek informatu dute 16 urteko nerabe batek Nafarroako Gobernuaren mendeko zentro batean ustez egindako sexu-eraso baten biktima izan zela lau urteko haur bat. Zentro hori nerabeentzako zentroa da, eta ez adingabe hain txikiak artatzeko sortu eta baimendutako zentroa. Horrek zalantza handiak sortzen ditu adingabeak babesteko sisteman baliabideak behar

bezala esleitzen ote diren eta arriskua behar bezala ebaluatzen ote den.

Bereziki kezkarria da, aurrekariak, ohartarazpenak eta aurretiazko salaketak egon arren, Nafarroako Gobernuak gai izan ez izana horrelako egoerak errepikatzea saihesteko. Tutoretza publikoa ezin da adingabeentzako arrisku-faktore gehigarri bihurtu; aitzitik, babes-, segurtasun- eta zaintza-berme indartua izan behar du.

Nafarroako gizarteak eskubidea du jakiteko zerk huts egin duen, nortzuk diren akats horien arduradun politiko eta administratiboak, eta zer neurri zehatz, egiaztagarri eta ebaluagarri hartuko diren deskribatutako gertakarien gisakoak, oso oso larriak direnak, berriro gerta ez daitezten.

1. Nafarroako Gobernuak zer organo eta arduradun zehatzek baimendu zuten lau urteko haur bat nerabeentzako zentro batean kokatzea, eta zer txosten tekniko, arrisku-baloraziok edo administrazio-ebazpenek bermatu zuten erabaki hori?

2. Nafarroako Gobernuak berehalako zer neurri hartuko du, espezifikoak eta egutegia zehatuta, adingabeak beren adinarekin eta profilarekin hertsiki bat ez datozen baliabideetara itzuliko ez direla bermatzeko, eta haien mendeko zentroetako segurtasuna eta ikuskapena eraginkortasunez indartzeko?

3. Abiarazi al du Nafarroako Gobernuak informazio- edo diziplina-espediterik, erantzukizuna argitzeko, errekurtsioa oker esleitzeagatik eta egoera hori gertatzea ahalbidetu zuten kontrol-akatsengatik? Hala baldin bada, adierazi espedientea noiz ireki zen, instrukzio-organoa zein izan den, zer pertsona edo kargu ukitu dituen eta espedientea zertan den.

Erantzuna ezezkoa bada, azaldu zer arrazoi egon den espediterik ez abiarazteko.

Iruñean, 2026ko otsailaren 8an

Foru-parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00045. Galdera, Legasako hirigunean ibilgailuen trafikoak sortzen duen arazoari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Legasako hirigunean ibilgailuen trafikoak sortzen duen arazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Bertizarana udalerriko herria eta kontzejua da Legasa. Nafarroa iparraldean dago, Bidasoa ibaia-
ren ezkerrean, eta 235 biztanle inguru ditu.

Herria herrigune trinko baten inguruan egituratzen da, laborantza-soroz, larreez eta eraikin sakabanatuz inguratuta. Herrigunearen iparraldean, N-121-A eta NA-1210 errepideak daude; hegoaldean, berriz, Gaztelu auzoa, hori ere Bertizarana udalerrikoa.

Gaur egun, Gaztelu auzorako sarbidea, N-121-A eta NA-1210 errepideetatik, Legasako herrigunea bera gurutzatuz egiten da, herriko plaza bera ere (Santa Katalina plaza) gurutzatuta. Gauzak horrela, ibilgailu asko pasatzen da egunero-egunero herrigunetik.

Horren ondorioz, arrisku-egoera bat sortzen da Legasako herritarren bide-segurtasunerako eta osotasunerako, eta horrek kezka gero eta handiagoa eragin du herrian.

Hori guztia ikusita, honako hau jakin nahi dut:

1. Nafarroako Gobernuak ezagutzen al du Gaztelu auzora sartzeko Legasako herrigunea gurutzatzen duten ibilgailuen trafikoak zer arazo dakarren?

2. Lurralde Kohesiorako Departamentuak izan al du harremanik edo bilerarik Bertizaranako Udalarekin egoera hori aztertzeko?

3. Hala baldin bada, zer irtenbide edo jarduketa planteatu, aztertu edo aurreikusi da Legasako herrigunean trafikoak murrizteko eta bertako biztanleen segurtasuna bermatzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/PES-00046. Galdera, 1055/2022 Errege-dekretuaren 34.1.b) artikulua dela-eta ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioaren gaineko ohar teknikoari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, 1055/2022 Errege-dekretuaren 34.1.b) artikulua dela-eta ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioaren gaineko ohar teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioari buruzko Hondakinen Koordinazio Batzordeak ohar tekniko bat onetsi zuen 2025eko abenduaren 19an, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioari buruz, Ontziei eta ontzietako hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 34.1.b) artikulua dela-eta. Ohar horretan honako hau adierazi zen:

«1055/2022 Errege-dekretuan jasotzen diren gainontzeko xedapenekiko interpretazio komun eta harmonizatu bat egitearren 34.1.b) artikuluari dagokionez, halako moduan non artikulua horretan ezartzen diren finantza-obligazioak betetzea ahalbidetuko baita, Hondakinen Koordinazio Batzordeak honako hau ERABAKITZEN DU:

1. Errefusa-edukiontzian utzitako ontziak garraiatzea beharrezkoa denez ontzi-hondakin

horien zati bat birziklatzeko berreskuratu ahal izateko, EEHSek beren gain hartu behar dute egiaz bildutako ontzien garraioaren kostu osoa, eta ez bakarrik instalazioan azkenean berreskuratzen direnena.

2. Tratamendu-instalazioak material-frakzio desberdinak bereizteko diseinatuta daudenez, funtzionamenduaren kostu osoa frakzio horien artean banatu beharko litzateke, eta frakzio bakoitzari dagokion proportzioa dagokien EEHSek hartu beharko lukete beren gain osorik, berreskuratutako ontziak ordainduz, ondorio hauetako 3. puntuari lotutako kenketak ezertan galarazi gabe. Ontziak ez diren materialak ere berreskuratzen dituzten instalazioen kasuan, EEHSek ontziei egotz dakizkiekeen kostuak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

3. Hala ere, teknika erabilgarri onenekiko (TEO) eraginkortasunik ezak ez dituzte EEHSek finantzatu behar, ezpada plantek berek, errendimendu baxuak berreskuratutako tona bakoitzeko kostuaren garestitze artifiziala ekar ez dezan.

Interpretazio-ohar honetan ezarritakoa gaur egun negoziatzen ari diren hitzarmenei aplikatuko zaie. Halaber, jada sinatuta dauden hitzarmenei ere aplikatu ahal izanen zaie, baldin eta autonomia-erkidego eskudunak hala erabakitzen badu».

Batzordearen erabaki horren ondorioz, litekeena da ontziak gaika biltzeko baimena duten EEHSek bidezko ekarpena ordaintzea ekoizlearen erantzukizun zabalduaren arloan. Interpretazio-ohar horretatik aitzina, egiaz bildutako ontzien garraioaren kostu osoa ordaindu beharko dute EEHSek, eta ez bakarrik instalazioan azkenean berreskuratzen direnena.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1. Departamentuak kudeaketarik egin al du Nafarroan baimendutako EEHSein interpretazio-irizpide hori nola aplikatuko duten ikusteko?

2. Kontuan hartuta oharrak adierazten duela jada sinatuta dauden hitzarmenei aplikatu ahal izanen zaiela, baldin eta autonomia-erkidego eskudunak hala erabakitzen badu, Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartuko du baimendutako EEHSen titularrak kostu oso hori ordaintzera behartzeko?

3. Kostu hori ordaintzeari ezetz esaten badiote, zer egingen du departamentuak?

4. Zer inpaktu ekonomiko izanen du oharraren edukia Nafarroan hautatutako material-fluxuetan sartzeak?

Iruñean, 2026ko otsailaren 10ean

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/PES-00047. Galdera, Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek igorritako gutun irekiari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek igorritako gutun irekiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek gutun irekia igorri zuten (zuri eta talde parlamentarioei) 2026ko otsailaren 10ean; haren bidez, 2026ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran egin zenituen adierazpenak jendaurrean zuzentzeko eskatzen zuten, bai eta 19/2019 Foru Legea behin betikoz betetzeko konpromiso irmoa har zenezan ere. Zein da zure erantzuna?

Iruñean, 2026ko otsailaren 10ean

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-26/PES-00048. Galdera, Nafarroako landa-guneetako autobus-geltokiei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroako landa-guneetako autobus-geltokiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak berak egindako adierazpenen arabera, zailtasunak egonen lirakeke landa-eremuetako autobus-geltoki jakin batzuk mantentzeko edo egokitzeko. Gobernuak dionez, jarduketa horiek urratu eginen lukete bide-segurtasunari, irisgarritasunari edo errepideen antolamenduari buruzko araudi indarduna.

Egoera hori eragin bereziki negatiboa izaten ari da Nafarroako udalerrri eta kontzeju askotan; izan ere, hiriarteko autobus-geltokiak kentzeak larriki zailtzen du garraio publikorako sarbidea, eta, gainera, lurralde-arrakala eta landa-ingurune despopulazio-prozesuak areagotzen laguntzen du.

Gai horrek gizartean eta lurraldean duen garrantzia kontuan hartuta, ezinbestekoa da zehatz-mehatz jakitea zer araudi zehatz baliatzen ari den geltoki horiek mantentzeko edo egokitzeko ezintasuna justifikatzeko, bai eta araudi horrek zer interpretazio- edo egokitzapen-tarte eman dezakeen ere.

Hori dela-eta, honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1. Zer lege edo araudi zehatzek eragozten dute, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren arabera, Nafarroako landa-guneetan autobus-geltoki jakin batzuk mantentzea edo egokitzea?

2. Ba al dago kasuari aplikatu beharreko maila desberdineko arau bat baino gehiago? Hala baldin bada, zeintzuk dira arau horiek?

3. Ba al dago departamentuaren beraren interpretazio-irizpiderik, jarraibide teknikorik edo txosten juridiko edo teknikorik arau horien aplikazio zorrotza zehazten duenik eta landa-inguruneetan autobus-geltokiak kentzera bideratzen duenik?

4. Departamentuak baloratu al du landa-inguruenari irtenbide alternatiboak edo egokituak aplikatzeko aukera, indarrean dagoen arau-esparruaren barruan?

5. Baloratu al da autobus-geltoki horiek operatibo mantentzea ahalbidetzen duen legeren edo arauren bat onartzeko edo aldatzeko aukera?

6. Nafarroa osoko hiriarteko autobus-geltokieta-tik zenbat daude arazo horren eraginpean azken bost urteetan, araudi hori betetzearekin lotutako arrazoiengatik, udalerriz udalerrri xehakatuta?

Iruñean, 2026ko otsailaren 10ean

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/PES-00049. Galdera, 2026ko tributu-neurriei buruzko legeari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, 2026ko tributu-neurriei buruzko legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tributu neurrien 2026ko legeak ezartzen duenez, lau baldintza egiaztatzen dituzten Nafarroako enpresek % 28 tributatzeari utziko diote, eta % 25 tributatzera igaroko dira. Hauek dira baldintzak:

– Enplegua mantentzea

– Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienterik ez aplikatzea arrazoi ekonomikoengatik

– Laneko istripu-tasa murriztea

– Berdintasun-planak betetzea

Nola egiaztatzen da baldintza horietako bakoitza?

Enpresak 50 langile baino gutxiago baditu, berdintasun-plan bat izatea exijituko zaio?

Iruñean, 2026ko otsailaren 11n

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-26/PES-00050. Galdera, Madrilén egin den azken Turismoko Konferentzia Sektorialari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Madrilén egin den azken Turismoko Konferentzia Sektorialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Madrilén egin den azken Turismoko Konferentzia Sektorialari buruz, non turismo-sektorearen eraldaketa integrala eta jasangarria bultzatzeko Europako funtsen exekuzioaren azken zatia sinplifikatzea eta arintzea onartu baita, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zer neurri onartu dira Europako funtsen betearazpena sinplifikatzeko eta arintzeko?

2. Zeintzuk dira onartutako epe berriak turismorako Europako funtsak gauzatzeko, bai Helmuturako Turismo Jasangarritasunerako Planetarako, bai Helmuturako Kohesio Ekintzetarako?

Iruñean, 2026ko otsailaren 11n

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-26/PES-00051. Galdera, NORDEX taldeak jaso dituen laguntzei, dirulaguntzei eta kenkari fiskalei buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, NORDEX taldeak jaso dituen laguntzei, dirulaguntzei eta kenkari fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan NORDEX taldeak, egiturazko edo teknologiko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezarri edo garatzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzarako, prestakuntza-sistemengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b-a laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzeptuengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatik kenkariak, inbertitzeagatik kenkaria edo bestelako kenkariak) eta zer zenbateko aplikatu ditu NORDEX taldeak azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan?

Iruñean, 2026ko otsailaren 11n

Foru-parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-26/PES-00052. Galdera, 2025eko martxoan iragarri zen epe luzeko inbertsio industrialaren funtsari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2025eko martxoan iragarri zen epe luzeko inbertsio industrialaren funtsari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak 2025eko martxoan iragarri zuen epe luzeko inbertsio industrialaren funtsari dagokionez:

– Noiz jarriko dira abian?

– Zeintzuk dira Gobernuak abian jartzeko aurkitu dituen zailtasunak, Gobernuko lehendakariak 2025eko urrian Navarra Economic Summit Foroan aipatu zituenak?

– Galdera honi erantzuten zaion egunean, funtsak zein kopuru ekonomiko ditu eta nondik datoz kopuru horiek?

Iruñean, 2026ko otsailaren 12an

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

11-26/PES-00053. Galdera, Sendaviva parkean 2025ean izandako bisitariei buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Sendaviva parkean 2025ean izandako bisitariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbat bisitari izan ditu, guztira, Sendaviva parkeak 2025ean?

Zenbat sarrera saldu dira guztira 2025. urteko denboraldian?

Zenbatekoa da parkeko bisitarien sarreraren zenbateko osoa, 2025. urteari dagokionez?

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Foru-parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-26/PES-00054. Galdera, beharturik eta baimenik gabe esterilizatutako desgaituei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, beharturik eta baimenik gabe esterilizatutako desgaituei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porrás, Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Osasuneko kontseilari Fernando Dominguez Cunchillosi, idatziz erantzun dezan:

1989tik 2020ra arte, Espainiako Estatuko lege-riak epailearen erabakiz ezgaituak izan diren desgaituen esterilizazio behartua edo baimendu gabea ahalbidetu du. Kasu gehienetan, esterilizazio-prozesu horiek osasun-sistema publikoan egin dira. Horrenbestez, honako galdera hau aurkezten dugu, idatziz erantzuteko:

Nafarroan, desgaitasuna duten zenbat pertsona esterilizatu dira behartuta eta zenbat baimenik gabe 1989 eta 2020 artean?

Iruñean, 2026ko otsailaren 12an

Foru-parlamentaria: Javier Arza Porrás

